


A T Z O K O  
**Andoain**

11. zbk.

1999ko abenduaren 26a.

eta andoaindarrak  
ando  
ainda  
rrak



**Gabonak**

# ETXE GIROKO JAIAK

Hamabigarren aldia da hau 'Atzoko Andoain eta andoaindarrak' izeneko aldizkaritxo honek argia ikusten duela. Gogoratuko duzue: 1998ko abenduan kale-ratu genuen lehen zenbakia; gure asmoen berri eman genizuen eta hilero-hilero kontu kontari arituko zen koadrila aurkeztu. Urtebete igaro da ordutik eta Gabonetan bete-betean sartuta gaude berriz ere. Eta hain zuzen ere, Gabonei buruz aritzeko aprobe txatu nahi dugu oraingo hau. Garai batean festa horiek zein kutsu zuten nahi dugu azaldu.

Zer ospatu handirik ez zen izaten gerra inguruko

urte ilun haietan. Baina alaitasun eta poza sobrante bazutela azpimarratu nahi izan dute, berriz ere, mahaiaren bueltan bildu ditugun solaskideek. Famili giroan edo koadrilan, berriketaldi eta kantuan ematen zituzten egun berezi horiek. Bazuten haiek ere, gaurkoaren aldean, berezitasunik.

Gerra aurreko Olentzeroa eta lehenengo errege kabalgata, gabon-kanta lehiaketa, etxeetan eta kalean prestatu ohi ziren naximentuak eta otordu berezietan izaten ziren janariei buruzko jakingarriak bildu ditugu. Hara guzti-guztiak hemen.

## JAIOTZA ETA ETXEKO APAINGARRIAK

Etxe guztietan ez baina askotan Gabonak gertu zirela usaitu orduko hasten ziren apainketa bereziak egiten. Urte osoan ondo gordeta eduki zituzten figurak atera eta naximentu polit askoak jartzen zituzten askotan eta askotan. "Gabonak baino lehenago hasten ginen naximentua prestatzen", esan du Iñaki Arregik, "Gure etxean betidaniko ohitura izan da hori", azpimarratu du: "Hasi ginen kartoizko figurekin, gero figura tikiak, gero haundiagoak, eta azkenerako, Mikel anaia zaharrenak egindako dekorazio eta guzti jartzen genuen. Barruan ispilu bat zuen kobazulo bat jartzen

genuen, erreka..., ez zuen detailerik falta."

"Ni ere", gaineratu du Lorenek "kartoizko figurekin hasi nintzen naximentua egiten. Neronek egin nituen gainerra. Gogoratzen naiz, etxeko gainontzeko gelatan hotza egiten zuenez, sukaldoko mahaiaren gainean jartzen nituela figura haiek, eta bazkaltzeko garaian, berriz, haiek kendu eta beste leku batera eraman behar izaten nituela. Gure ama errietan izaten nuen 'Ume hau beti erdian' esaka aritzen zen beti".

Etxeetan jartzen ziren naximentuez gain, ordea, herrian baziren beste

jaiotza batzuk oso bereziak: Ospitalekoa, eta La Salleskoek Allendegiko etxean jartzen zutena. "Ai ze polita izaten zen La Salleskoa! Naximentu haundi-haundia jartzen zuten, pareta osoa hartzen zuela...", ekarri du gogora Lorenek. "Zubi bat jartzen zuten; erreka, ur korrientarekin; izarra, berriz, bueltak ematen zituela..., detaile guztiekin", gehitu dio Iñakik.

Jaiotza izaten zen Gabonetako apaingarri bakarra. Ez koloretako argirik, ez zuhaitz edo pinurik... "Bueno", zehaztu nahi izan du Lorenek, "Arbol de Noe" hura jartzen zuten Trekuren etxean; izan ere, emakumea Suitzakoa zen eta handik ekarri baitzuen ohitura. Gogoratzen naiz kortxoarekin egindako figurak jartzen zizkiotela zintzilika. Zabalarenean ere jartzen zuten Gabonetako arbola".



1954 urtean egin zen jaiotza lehiaketako talde bat. TRUCHUELO



Iñaki Arregi

"Gabonak baino lehenago hasten ginen naximetua prestatzen. Hasi ginen kartoizko figurekin, gero figura tikiak, gero haundiagoak..."

# GABON GAUA

## OLENTZEROA ETA KANTU ESKEA:

Gabon aldia abenduaren 24eko ospakizunak zabaltzen zuen, jakina. Egun horretako goizak, nolahi ere, apenas izaten zuen ezer berezirik: Langileek lanean ematen zuten goiza; eta emakumeak, aldiz, sukaldean, gauera-ko otordu berezia prestatzeko ahaleginak egiten. Gabon giroa, batipat, arratsalde eta ilunbarrean hasten zen aditzen herrian, orduan ateratzen baitziren kantari Olentzeroa eta haren bueltan biltzen ziren kuadrilak.

"Gerra aurretik gogoratzen naiz nola ateratzen zen Martin Alberdi eta kuadrila kantari", esan du Loren Navarrok. "Oso ondo abesten zuten haiek. Makil batzurekin eta baserritar jantziekin ateratzen ziren, blusekin". Baina lagun kuadrilak ezezik, gerra aurreko urte haietan zenbait eskoletatik ere ateratzen ziren kantu-eskean, La Salletik behintzat bai. Roke Ansak ondo gordeta du gerra aurreko argazki bat, La Sallekoek atera zuten olentzeroa erakusten duena. "1935 urteko argazkia da. Haiek Eguberri egunez ibili ziren urte hartan, goizez. Gogoratzen naiz gu goizeko bederatzietako mezetatik aterata haiek nola kantuan hor zebiltzan".

Askotan errepikatu behar izan dugu orriotan gerrak, gerra anker hark, herriko ohitura asko aldatu edota desagertarazi egin zituela. Olentzeroren hau, ordea, mantendu ezezik indartu ere egin zen 40.eko hamarkadatik aurrera. Urtetik urtera kantu eskean ateratzen zirenen kopurua handituz joan zen herrian.

La Sallekoen taldea zen garrantzitsuenetarikoa. Olentzero, hezur eta



Gerra aurretik ere irteten ziren kantu-eskean La Salle ikastetxek ikasleak. Argazki hau 1935 urtekoa da.




Loren Navarro

"Gerra aurretik gogoratzen naiz nola ateratzen zen Martin Alberdi eta kuadrila kantari. Oso ondo abesten zuten haiek".

mamizko Olentzero, asto batek tiratzen zuen gurdian jartzen zuten, eta hark ematen zuen kantua gidaritza. "La Salleko taldean nik Roke Etxeberria gogoratzen dut. Oso ahots ederra zuen", esan du Miren Zarragak. "Beste Olentzero famosoa zen Ramon Lasa", gaineratu du. Olentzeroen zerrenda, dena den, askoz luzeagoa da. Miguel Amas gure solaskideak, esate

baterako, behin baino gehiagotan bete izan du ikazkinaren papera La Sallekoen taldea Gurutze Santuko elkarteak hartu zuenetik -atzera, Gazte-Lekuk hartu zuen berriz taldearen ardura. Miguelek berak kontatu digu zein betebeharrak izaten ziren Olentzerok orduan: "Karro barruan jartzen zen Olentzero, eta harek abesten zuen bertso bat. Kanpotik erantzun egiten zion koroak".

Gerra osteko urte ilun haietan, La Sallekoena ezezik, beste talderik ere ateratzen zen kantu-eskean: Labordeko apendizek osatutakoa, esate baterako. "Orain 53 urtekoa da hau", esan du Iñaki Arregik Labordekoek atera zuten taldearen argazkia erakusten digun bitartean. "Gabon gauean ateratzen ginen horrela, kalez kale eta enpresaz enpresa. Eta orduko paternalismoa gogoraturikan, ba Labordetarrekin hitz eginda egoten zen, eta biltzen zen dirua ospitalera eramaten zen", jakinarazi du. "Denetara ere", jarraitu du "bazuen talde harek berezitasun bat. Don Manuel Lekuonak egin zituen bertso batzuek guretzako. Jaiotza aurretik joaten zen, eta gu, dantzaz jantzita, ateratzen ginen dantzan, haren bila".



Miguel Amas

"Karro barruan jartzen zen Olentzero, eta harek abesten zuen bertso bat; Kanpotik erantzun egiten zion koroak".



Labordeko apendizek gabetako taldea lantegiaren atarian kantu-eskean hasteko prest.

Hara hemen Laborde lantegiko 'aprendizek' Gabon egunez kantatzuten zituzten bertso berezi-berezi haiek:

Andoaingo herri maitea  
bai herri polita!  
ibai biren ur-gurutzan  
ederki jarrita.

Oria ibai oparua du  
alde batetik;  
Leizaran azkarra, berriz,  
beste aldetikan.

Berri on bat dakarkigu gaur  
Belengo artzaiak,  
gogoz entzun balezate  
Andoaingo anaiak...

Haur eder bat jaio zaigula  
Belengo Atean;  
hantxen ikusita gatoz  
estalpe batean.

Mutiko politagarikan  
ez du Donostiak;  
Donostia ezeik, ezta  
lurbira guztiak.

Hark argitu du gau iluna  
egun bata bezela;  
ta aingeruak esan digu  
poztu gaitzela.

Andoaingo eliz ederrak  
Belen bat irudi;  
Jesus haurra, jaioberria,  
han agertu guri.

Belengo Artzaiak gerala  
esan dizuegu...  
Amets zoragarriren bat  
nunbait egin du.

Laborderen Olaetako  
ikasleak gera,  
etorriak herriari  
poz hau ematera.

Herriari poz handia ta  
aintza Jainkoari;  
Jainkoari aintzarekin;  
pakea gizonari.

Aintza ta pakea dedila  
zeruan ta hemen;  
hala gerta dedila, bai!  
Gora Jesus! Amen.

Kalez kale ezezik, baserriz baserri  
ibiltzen zen kuadrilarik ere izaten zen.  
Haiek, afaldu ondoren betetzen zuten  
kantu eskean ardereko ohitura. Joxe-  
mari Olazabalek gogoratu duenez,  
gauean eskean atera eta goizalderarte  
baserriz baserri kantuan ibiltzen ziren

orain dela 50 urte inguru.

Baserrietan bezala kalean ere dirua  
jasotzen zen gabonetako abesti zen-  
bait kantatzearen truke. "Txapela  
kendu eta hantxe biltzen genituen sos  
batzuk", esan du Roke Ansak urte bate-  
an bai eta bestean ere bai bete izan  
zuen ohitura gogora ekarrita.

Iñaki Arregik zehaztu nahi izan  
digunez, talde antolatutan ezezik, bes-  
telako kuadrilek kantuan ematen  
zuten gabon gaueko arratsa: "Behin  
koskortu ginenean, taberna giroan  
biltzen ginen kuadrilak, kantuan ari-  
tzen ginen, gure kasa. Azken hamarka-  
da hauetan galdu da ohitura hori  
Andoainean". "Hunkigarria izaten zen  
oso", gaineratu dio albotik Joxemari  
bere koinatuak; "Hator, hator" abesten  
hasi eta jende guztiak jarraitzen zuen;  
batzuk negarrez ere hasten ziren emo-  
zionatuta. "Orain, berriz", jarraitu  
du, "okurritu ere ez zaio egiten inori".

#### AFARIA:

Gabon gaueko afaria berezia izaten  
zen. Egueno-egunero jaten zituzten  
babarrunak edo babak behingoagatik  
behintzat ahaztu, eta ahal zela, otordu  
espezial samarra prestatzen zuten  
orduko etxeke andreek Gabon Gauera-  
ko. "Nere etxean behintzat, aza-olioak  
jartzen ziren beti", esan du Miren  
Zarragak. "Gurean, koliflora ere bai",  
gaineratu dio Loren Navarrok. Bigar-  
ren platera, berriz, arraina, arrain  
errea "ahal zen etxeetan bixigua eta  
ezin zenetan, txitxarroa", zehaztu nahi  
izan du Joxemari Olazabalek.

Postrea ere izaten omen zen: Mahas  
pasak eta konpota, batez ere. Iñaki  
Arregik oso gogoan du euren etxean  
nola prestatzen zuten konpota bere  
amonak, pikuak, aranak, sagarrak eta  
egunerokoan ikusten ez zituzten beste  
fruitu batzuekin: "Errege sagarrak-eta  
erosten zituen eta afaldu aurretik ari-  
tzen zen haiek zuritzen ba konpota  
prestatzeko. Gu zai egoten ginen sagra-  
rren zuztarra jateko".

Gure solaskide guztiak bat etorri  
dira azpimarratzerakoan, garai gogo-  
rrak izan arrren, poz handiko gaua  
izaten zela hura. Barre eta algara suel-  
to egiten omen zen famili giroan.

#### MISA DEL GALLO:

Kantu eta joko saio haiek, gehienera  
ere, 'Misa del gallo'-ra joateko ohiturak  
moztuko zuen. Ez zen, dena den, oso  
ohitura zabaldua. Gerra aurreko urtee-  
tan hasi zen herrian ekitaldi erlijioso  
hura prestatzen baina ez zen beste eliz-  
kizunetara adina jenderik joaten. "La  
Sallekoak Allendegiko etxean zuten



1934 urtean Andoainean kalez kale ibil zen olentzeroa.



Miren  
Zarraga

"Nere etxean behintzat,  
aza-olioak jartzen ziren beti.  
Aza-olioak eta gero txitxarroa"

Kantu saio eder askoak izaten ziren  
etxerik gehienetan. "Radiorik ez  
genuen etxean, telebista, jakina, ezta  
pentsatu ere. Hortaz, guk jartzen  
genuen giroa", dio Joxemari Olazaba-  
lek. Loren Navarrok gaineratu duenez,  
"karta-jokoan eta partixean ere" ari-  
tzen ziren egun horretan, sukaldeko  
epelean.

kapilan hasi ziren egiten 'Misa del gallo'  
gerra aurrean", jakinarazi du Iñaki  
Arregik. "Goiko eskolan ere izaten zen  
gero Gabon gaueko meza", gaineratu  
dio Miguel Amasek. Joxemari Olazaba-  
lek zehaztu du, berriz, "La Sallen igoal  
25 urtez" egin zela Gabon gaueko meza  
hura eta apaiza eta monagilo berek  
zuzendu zutela elizkuna urte horietan  
guztietan: "Sasierrotako Miguel Joxe

apaiz eta Juantxo nire anaia monagilo".

Loren Navarrok gehitu nahi izan  
duenez, Lasallen ezezik jesuitinek ere  
egiten zuten 'Misa del gallo'. "Villa  
Argentinan ere izaten zen. Ondo gogo-  
ratzen naiz, abestu egiten baikenuen  
elizkizun hartan". Roke Ansaren arabe-  
ra, ospitalean ere antolatzen zuten eliz-  
kizun hura.

## EGUBERRI EGUNA

Abenduaren 25a egun inportantea zen oso egutegian. Horrelakotan, ohi zenez, mezarako buelta eginez kunplitu beharra izaten zen, derrigorrean. Elizkizun hark, nolana dela ere, bazuen berezitasunik beste aldean.

### GABON-KANTU LEHIAKETA:

Meza nagusiaren ondorenean, naximentuarekin ez baina kanta saioak jarraitu egiten zuen. Izan ere, urtetan gabon-kantu lehiaketa antolatu izan baitzen gure herrian. "Zein urtetatik zein urtetara ez naiz gogoratzen; seguruenera hutsuneak ere izan ziren kantu lehiaketa hartan. Denetara ere, gogoratzen naiz auzokoan artean konkursa antolatzen zela Basteroko herriko eskolako aretoan", kontatu digu Iñaki Arregik. "Ondo gogoratzen naiz, bai", gaineratu dio Lorenek; "musika ikasteko erabiltzen zuten gela hartan izaten zen konkurtsoa". Iñakik jarraitu duenez, lehiaketa hartan "Etxeberrieta-koak izaten ziren onentsuenetakoak. Mariano Arberas han tartean izaten zen eta tripleak ere bastante onak zituzten: Ramon Etxeberria, Jose Luis Urrutia txistularia, Letamendiata-

Miguel Amasek gogora ekarri duenez, Eguberri egunean, La Salle ikastetxeko ikasleek San Martin elizara jeisten zuten naximentua bizkarreran hartuta, eta kantari aritzen ziren goizeko zortziretatik hamarretarako tarte horretan. "Dantzariz

jantzita, larruzko abarkak jantzita ateratzen ginen egun horretan -behin baino gehiagotan abarka haiekin Kaletxikiko aldapan irrist egin ere bai!- Hamarretako meza nagusia hasi bitartean kantuan aritzen ginen".



Eguberri eguneko eguerdian egiten zen gabon-kantu lehiaketa. Argazkian ageri dena 1953 urtekoa da. TRUCHUELO



Iñaki Arregi

"Etxeberrieta-koak izaten ziren onentsuenetakoak. Mariano Arberas han izaten zen eta tripleak ere onak zituzten. Ramon Etxeberria, Jose Luis Urrutia, Letamendiatarrak...".

rrak... Haiek jaso zuten saria urterik gehienetan".

Joxemari Olazabalek jarraitu duenez, kantu giro hura lehiaketa bukatu ondoren ere izaten zen kaleetan. Eguberri egunez, meza nagusia bukatu ostean eta bazkari garaia heldu bitartean, txikiteoan aritzeko ohitura handia izaten zen. "Tabernak bete-bete egiten ziren, eta kuadrila guztiak abesten hasten ziren. Orain sumatzen ez den beste poz eta alaitasun bat zegoen", iritzi dio.



Joxemari Olazabal

"Eguberriko bazkariaren aurretik tabernak bete-bete egiten ziren, eta kuadrila guztiak abesten hasten ziren. Orain sumatzen ez den beste poz eta alaitasun bat zegoen".

### BAZKARIA:

Bezperan afari berezia eta biharramonean ere halakoxekoa. Egundorretan ahal ziren jakirik espeziale-nak ekartzen ziren mahai gainera, nahiz eta gaur egunetik begiratuta oso espezialak ez diruditen, egia esan. Miren Zarragaren etxean, esate baterako, oilo-salda izaten zuten, eta salda egiteko erabili zuten oilo hura

bera patatekin gisatuta gero.

Otordu hura bukatzeko, goxo piska bat ere izaten zen etxerik gehienetan: turroia. Famili askotan Eguberri egunerako erreserbatuta egoten omen zen postre hori. "Turroi gogorra jaten genuen, oraingoa baino askoz ere gogorragoa. Mailuarekin ere lanak izaten genituen hura

puskatzeko!", esan du Roke Ansak.

Ez zen askoz gehiagorik izaten; Gabonetarako propio erosten zen pattar piska bat akaso. "Litro erdiarekin Gabon gauerako, Eguberri egunerako eta festa guztietako izaten genuen", kontatu digu Miren Zarragak.

## INOXENTE EGUNA

Ez zen propio gabonetako ospakizuna baina, giro hartan bazen egun bat ume guztiek bereziki gustokoa zutena: inoxente eguna. "Gure ilusio haundiena izaten zen soka bati ahalik eta pote gehien lotu eta hura tranbiari zintzilikatzea... Tranbia ibilean hasten zenean.. uuh! denak pozik!", dio Iñaki Arregik.

Baina poteena ezezik hain inozenteak ez ziren beste jolas batzuk ere egiten zituzten egun horrekin, jende helduaren amorraziorako: zakuarena esate baterako. Jartzen zuten zaku bat goitik lotu baina behetik irekia zegoela kalearen erdian eta bertan sartzen zen koadrilako txikiena. Aitonaren bat edo ondotik pasa-

tzerakoan eskatzen zioten mesedez laguntzeko, zaku bizkarrera jaso ezinean zebiltzala-eta. "Bere borondate onarekin hasten zen aitona zakuaren muturretik gora egiten, eta da! korrika atera behar izaten zuten zaku barruan zegoenak eta baita



Mikela Ansa

"Egun hura orain baino askoz gehiago nabaritzen zen. Bazterretan broma gehiago ikusten zen".

laguntza eskatu zuenak ere. Hura aitonaren amorrua!", kontatu digu Iñakik.

Gaiztakeria handi samar horiez gain, joko "inoxenteagoak" ia denek egiten zituzten herrian: erreala lurrera itsatsi jendeak ezin har zezan, periodiko paperean harri bat bildu eta kalean utzi norbaitek ostikoa nola ematen zion ikusteko, papezko txontxongiloak besteen bizkarrera itsatsi, txokolotote papera txukun-txukun bildu baina barrua hutsik zuela... "Egun hura orain baino askoz gehiago nabaritzen zen. Bazterretan broma gehiago ikusten zen", esan du Mikela Ansak.

## URTE ZAHAR, URTE BERRI

Oraingo Urte Zaharreko ospakizunaren aldean, orduko hura diferentea zela azpimarratu nahi izan digute denek. "Gabon gauaren modukoa zen guretzat", esan du Lorenek. "Famili giroan ospatzen zen", gehitu du Miguel Amasek; "etxe aldera egiten zen festa zen, ez kale girokoa", bukatu du Iñaki Arregik.

Miren Zarragak gogoratu duenez, baina, eurenean behintzat Urte Zaharrak izaten zuen berezitasun bat Gabon gauaren aldean. Urteko azken gauean familikoekin ezezik bizilagunekin ere egiten zuten festa afaldu ostean. "Egun horretan, gogoratzen naiz, -esan du-, "bizilagunak jeisten ziren gure etxera, edo gu haienera igo. Giro oso ona sortzen zen". "Dena den, -zehaztu dio albotik Mikela Ansak-, bertatik bertara mugitzen ginen, kalea eta horrela, ezta pentsatu ere!".

"Urte Zahar egunean, jarraitu du Miguel Amasek-, guk permisoa izaten genuen Inaxionera joateko, hango Bixentak txanpaina ematen zigulako. Txanpain hura erateagatikan jeisten ginen kalera hamabiak jo ondoren. Gero, txintxo-txintxo berriz bueltan etxera".

Urte berriaren etorrerarekin bat mahats aleak jateko ohitura kanpotik eta oso berandu sartu zen herrian. Gure solaskideek horrelakorik ez dute ezagutu euren gazte garaietan. Afari berezia egin eta gehienak ohera joaten



Herriko tabernaren batera joan eta txanpain kopa bat hartzea beste parrandarik ez zen izaten Urte Zahar egunean.

omen ziren. ordulariak hamabiak jo zituen edo ez erreparatu gabe.

'Urte berri on' biharamoneko goizean opatzen zioten elkarri. Urteberriko egunarekin ari garela, mahaiaren bueltan biltzen den koadrila honetako kideei anekdota bera etorri zaie burura -protagonista ezberdinekin kontaktzen dute, baina pasadizo bera, azken finean-. Hara: Ba omen zen herrian beti garoa lapurtzen ibiltzen zen pertsonaia eta urte berria ere jardun horretarako aprobetxatu omen zuen. "Garotan zela, -esan du Miguel Amasek-, Joxe Inaxio guarda etorri omen zitzaion haserre. 'Zer egiten dek

hemen, zer egiten dek?' bota zion; eta lapurrak: Hara! egia esango diat ba, aurten lehenengo aldiz egin diat!".



Miguel Amas

"Urte Zahar egunean permisoa izaten genuen Inaxionera joateko, hango Bixentak txanpaina ematen zigulako. Gero, txintxo-txintxo etxera".

## ERREGE EGUNA

Inoxente egunarekin batera, urtarilaren 6koa zuten garai hartako umeek egunik gogokoena. Olentzerok opariak ekartzearena erabat ohitura modernoa da gure inguruetan, gure solaskideek orain gutxi arte ezagutu ez dutena. Euren ume garaietan, Errege Magoak iristen ziren euren etxeetara, eta zain-zain egoten ziren noiz helduko. Kantuan ere aritzen omen ziren esperoan. Oraindik abesten den 'trakatan-trakatan, hiru errege' abestia gain, kuadrilako zaharrenek ondo gogoratzen dute euren aiton-amonek erakutsitako beste kantu zahar hau ere:

Erregeak datoz, erregeak datoz,  
Bretxan barrena, Bretxan barrena.  
Ikatzza gutxi ematen dute,  
txanpon batena, txanpon batena.

Lorenek kontatu digunez, Errege Magoen etorrera kabalgata bidez iragartzen gerra denboran hasi ziren Andoainen. "Gure aita oraindik kanpogan zen ihes eginda, eta lehendabiziko kabalgata orduan ezagutu nuen", esan du. Joxemari Olazabalek azaldu duenez, lehen ekitaldi hura "kutsu politiko handikoa" izan zen, "kutsu frankista handikoa". Gure solaskideek esan duteenez, geroztik urte batzuetan ez zen herrian kabalgatarik antolatatu, harik eta Gurutze Santu elkarteak ireki eta hark ardura hura bere gain hartu zuen arte.

Kabalgata baino, dena den, biharamonetako goizaren esperoan izaten ziren orduko umeak. "Bagenekien gauza haundirik ez zutela uzten, baina zapatak ondo-ondo garbitu eta leihoan jartzen genituen", esan du Iñaki Arregik. "Horixe; gau guztiak lorik egin



1959 urteko errege kabalgata. TRUCHUELO.

gabe pasatzen genuen, erregeak etxera nola sartzen ziren entzun nahian", gehitu du Miren Zarragak. "Bai, baina halakorik ez gertatzeko mehatxuak ere jasotzen genituen", zehaztu dio Iñakik: "Esnatzen bazarete, erregeek ikatzza utziko dizue e!, esaten ziguten gurasoek".

"Baina ondo disimulatzen zute e!", esan du Joxemari Amutxastegik. "Gogoratzen naiz gauean etxean, zapatekin zaldiek ateratzen duten soinuaren antzekoa egiten zutela: takata-takata...." Eta klaro, eurek dena sinestu.

Eta oparitan zer jasotzen zuten garai hartan? Ba etxe bakoitzean zuten ahalmenaren araberrako erregaliak. "Mahas-pasa batzuk igoal, eta denak konforme gainera!", esan dute. "Bai, gehienetan mazapana ez zen falta izaten. Suge formako kaja haiek ia denek jasotzen genituen", esan du Iñaki Arregik.



Joxemari Amutxastegi

"Gurasoek ondo disimulatzen zuten e! Gogoratzen naiz gauean, etxean, zapatekin zaldiek ateratzen duten soinuaren antzekoa egiten zutela."

Ahal zen etxeetan, baina, jostailuak ere iristen ziren. "Egurrezko karro batzuk izaten ziren, kanpaitxo batzuk zituztenak...; hojalatazko ontziak ere bai, kirrinkiloren bat edo beste...", esan du Joxemari Amutxastegik. "Gogoratzen naiz nola behin Kontxa Arretxeren dendan amak erosi zidan kartoizko panpina bat", jarraitu du Miren Zarragak. "Larru-bizirik zegoen, jantzirik gabe, baina sekulako ilusioa egin zidan inoiz horrelakorik ez nuen izan eta! Baina handik gutxira etxe atzekaldean jolasten ari ginela euria hasi eta busti egin zitzaidan. Panpinarik gabe geratu nintzen, hori pena!"

Mirenek amak oparitu zion panpin hura Kontxaren eskaparatean ikusia zuen aurrez, eta modu horretan jabetu zen Errege Magoen papera aita-amek betetzen zutela. Gure koadrilatik Lorenek eta Joxemari Olazabalek ere ondo gogoan dute Erregeak gurasoak zirela noiz jakin zuten. "Zortzi bat urte nituen", esan du Joxemarik. "Nik ere horrelakoren bat", jarraitu du Lorenek: "Aitak eta amak esan zidaten beraiek uzten zituztela opariak, eta nik sinestu nahi ez!" Jakina, egun horren majia sekretua argitzearekin batera amaitzen baita.



1959 urteko errege kabalgatan irten ziren San Jose, Maria, aingerua eta artzainak. TRUCHUELO

# ... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Urte berriarekin batera indarberri-tuta etorriko gara. Urteko lehengoan kirolei buruzko kontakizunak nahi ditugu ekarri orri hauetara, garai bateko andoaindarrek zuten sasoiaren erakusgarri. Apostu eta lasterketei buruzkoekin emango diegu, bada, segida aurreko urteko kontu zaharrei.

Kontu zahar pila askoa bildu baitugu orainarte. Hamaika zenbaki egin ditugu (zenbaki adierazgarria, ezta?). Hemen alboan dituzu guztien azalak. Erreparatu iezaietu ondo guztiei; bakarren bat falta zaizun begiratu eta hura eskuratu nahi izanez gero hots egiguzu 300732 telefonora. Gordeko dizugu ale bat. Ondo?

## Taldea berri- nabian gabiltza

Ikaragarri kontu zahar pila astindu ditugu orain arte, baina oraindik baditugu gai ugari kajoian gordeta. Datorren urtean ere, hila-betero argitaratuko da aintzinako istorioei buruzko aldizkaritxo hau. Horretarako, ordea, kontu horiek ondo ezagutzen duen jendea behar dugu. Aurtengo taldea berri-eta osatu egin nahi baitugu, izan ere. Animatu zaitetz eta deitu 300732 telefonora.

ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak




ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak

ando  
ainda  
rrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak

ando  
ainda  
rrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak

ando  
ainda  
rrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak

ando  
ainda  
rrak



ATZOKO  
**Andoain**

eta andoaindarrak

ando  
ainda  
rrak



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udalak



Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Olaia Ubeda. **Argazkiak:** Udal artxiboa. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.